



Mugarik gabeko artea. Mugak gaindituz, lengoaiak arakatur

Uzt. 02 2025

Kod. W01-25

Mod.:

Online zuzenean

Edizioa

2025

Jarduera mota

Jarduera irekia

Data

Uzt. 02 2025

Kokalekua

Online zuzenean

Hizkuntzak

Gaztelera Euskara

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Azalpena

XX. mendearen hasieran abangoardiak oldarka sartu zirenetik, arte sorkuntzarako diziplina arteko hurbilketaren ideiak XX. mendeko artea zeharkatu du gaur egun arte. Artearen transposizioa sormen adierazpen guztietara, literatura, musika, antzerkia, arkitektura, diseinu industrial edo moda, mugak gainditzeko, hizkuntza berriak esploratzeko, elkarriketak sustatzeko eta eraldaketa kultural, sozial edo politikoa bultzatzeko nahitik sortu da.

Diziplina arteko ikuskera horren indar historikoa eta gaur egungo garrantzia gorabehera, erakunde ugari ez dituzte askotan korronteak eta diziplina artistikoak zatitzera eta hierarkizatzen jotzen duten konbentzio historiografikoak gainditu nahi. Gure ustez, erakunde museistiko garaikidean mugarik gabeko artea aztertzea eta interpretatzea aukera bat da, ez bakarrik artearen eta praktika artistikoaren esperientzia aberasgarriagoa ahalbidetzeko, baita gero eta publiko anitzagoarekin elkarriketa, enpatia eta konexioa sustatzen dituen erakundea eraikitze ere.

Programa

2025-07-02

17:00 - 17:15	Agintarien agurra / Saludo de las autoridades
17:15 - 17:45	“Arte sin fronteras. Arte sin fronteras. Superando límites, explorando lenguajes” Miren Arzalluz Museo Guggenheim Bilbao - Zuzendari nagusia / Directora general
17:45 - 18:00	Agintarien hitzak / Intervención autoridades

Irakasleak



Miren Arzalluz

Miren Arzalluz Loroño (Bilbo, 1978) Guggenheim Bilbao Museoaren Zuzendari Nagusia da aurtengo martxoaz geroztik. Deustuko Unibertsitateko doktoregoa du Historian, Artearen Historiako Masterra egin zuen The Courtauld Institute of Art-en eta Politika Konparatuan Masterra, berriz, London School of Economics-en. Egungo erantzukizunean hasi aurretik, Palais Galliera-Parisko Modaren Museoan aritu zen zuzendari sei urtez. Tarte horretan, erakundea fase berri batera eramatea lortu zuen birdefinizio-prozesu sakon eta berritzaile baten bidez, eta publikoaren nahiz kritikaren aldetik onarpen handia izan zuten erakusketen bitartez. Miren Arzalluzek nazioartean lortutako aintzatespenaren erakusle dira, baita ere, 2024an Frantziako Kultura Ministerioak Chevalière de l'Ordre des Arts et des Lettres izendatu izana, eta, berrikiago, Estatu Batuetako diseinu-sari nazionaletan epaimahaikide gisa aritu izana New Yorkeko Smithsonian-eko Cooper Hewitt Diseinu Museoak ematen dituen National Design Awards 2025 sarietan. Parisera joan aurretik Etxepare Euskal Institutuaren zuzendaria izan zen eta, hori baino lehen, Balenciaga Fundazioaren eta Museoaren komisario-buru izan zen bost urtez, erakusketen eta Bildumaren arduradun.

Matrikula prezioak

IZEN EMATEA ONLINE ZUZUENEAN		2025-07-01 ARTE
Orokorra		0 EUR

Kokalekua

Online zuzenean

Online zuzenean